


# Burdeletik animera



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

Japonia, XVII. mende hasiera. Tokugawa shogunaldian herrialdea bateratu zenean, Edo garaia hasi zen. Gatazka luzeen ondoren, bakea iritsi zen Japoniara, hirietako burgesia entretenimendu gose zegoen eta giro egokia sortu zen arte eta kultura jardunetarako.

Izumo no Okuni Izumoren tenpluko apaiza zen, baita dantzari trebea ere. Tenplurako dirua lortzeko prostituta talde bat bildu eta dantza eta poesia ikuskizunak egiten hasi zen. Baina, berehala, lortutako arrakasta medio, tenplua baztertu eta ikuskizunei eskaini zien lan jardun osoa. Berez, ikuskizuna prostituten bezeroentzako erreklamo zen. Okuniren dantzariak eskaintzen zuten zerbitzu gehigarri hori ez zen berria, aurreko ikuskizuna ordea bai. Ez zuen ezer asmatu, baina zenbait dantza eta testu moldatuta, *kabuki* antzezpen moldearen oinarriak jarri zituen.

Eduki sexuarek, estetika transgresoreak –maiz Okunik berak gizonetzkoen jantziak erabiltzen zituen eszenatokian–, istorioak kontatzeko molde berritzaileak, aktoreekin sexu harremanak izateko aukerak... herri-tarren pasioak piztu zituzten. Orduko japoniarren herenak aldioro katana edo ezpata bizkarrean zeramatela kontuan hartuta, Ikuskizunek amaiera odoltsua izaten zuten sarri. Horregatik, 1629an agintariak liskarrik saihesteko neurriak hartu zituzten. Kabukian armak debekatu zituzten? Ez, emakumezko aktoreak debekatu zituzten.



1850 URTE INGURUKO GRABATUA, KABUKIKO AKTOREAK IRUDIKATZEN DITUENA, GUZTIAK GIZONEZKOAK (ERDIKOA ERE BAI).

Emakumezkoen rolak egiteko itxura androginoa zuten mutiko gazteak erabiltzen hasi ziren, *onnagata* izenekoak. Harreman homosexualak ez ziren tabua Edo garaian, eta onnagatek ere sexu zerbitzuak eskaintzen zizkieten ikusleei. Eta emakumezko ikusle batzuk ere hasi ziren zerbitzu horiek kontsumitzen. Arazoa konpondu ez ezik, areagotu egin zen. Shogunaren ministroek emakumezko rolak ere –eta ondorioz onnagatak– debekatzea erabaki zuten orduan.

Berrito ere, alferrik. Gizon helduek antzetzutako gizon helduei buruzko istorioak ez zuten publikoaren interesa piztu. Antzerki enpresariak orotariko trikimailuak asmatu zituzten zentsura gainditzeko eta

gizonez jantzitako emakume aktoreak sartzen hasi ziren. Erremedioa gaitza baino okerragoa zela ikusita, emakumezko rolak eta onnagatak berrito onartu zituzten kabukian. Emakumezko aktoreak ez, ordea. Horregatik, *takarazuka* asmatu zuten, rol guztiak emakumezko aktoreek soilik jokatzen dituzten antzerki moldeak.

Izumo no Okunik duela 400 urte abiatutako eta debekuek taxututako molde hura erabat errotuta geratu zen japoniar kulturaren eta eragin hori oraindik oso handia da gaur egun. Animean, mangan eta Japoniako beste adierazpen artistiko eta estetikoetan androginia eta genero muga lausoak oso nabarmenak dira. ●



## Agur Da Vinci, kaixo Rafael

Azkenaldian badirudi efemerideek artisten balioan eragiten dutela. Iaz 500 urte bete ziren Leonardo Da Vinci hil zela eta hari buruzko erakusketa, ekitaldi eta omenaldiz beteta egon zen urtea. Aurten Raffaello Sanzio Urbinoko margolariaren txanda da, 1520ko apirilaren 6an hil baitzen. Eta hari buruzko erakusketak antolatu dituzte han eta hemen. Soilik Italian, Rafaelen lanekin hiru erakusketa

handi egingo dituzte: Urbino jaioterrian, Erroman eta Milanen. Gainera, Frantziar, Ingalaterran eta Alemanian ere Rafaelen margolanen eske dabilta erakusketa gehiago prestatzeko. Denek nahi dituzte obra ezagunenak eta datak adostu behar izan dituzte horretarako. Lehia basatia izan omen da; politikak eta diplomaziak hartu dute parte 50 koadro inguru mailegatzeko negoziazio gorrorretan. ●